

BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk eskainiko ditugun bizikletak, bizikleta elektrikoak izango dira. Hala ere, ez dira bizikleta elektriko arruntak izango, guk instalatutako eguzki-panelak izango dituztelako. Horrek esan nahi du, bizikleta argitan egonda, argi-izpiak xurgatuz, kargatzeko ahalmena izango duela, kargadore bat erabili gabe. Bestalde, gurpilak mugimenduan daudenean energia sortu ahal izango dute baita ere.

Laguntza handiko produktua izan daitekeela pentsatzen dugu, hainbat erabilera ezberdin izan ahal dituelako. Noski, bizikleta bat denez, garraio-bide bezala erabil daiteke, bizikleta arrunt bat bezala. Baina, baita ere, energia xurgatzeko eta elektrizitatean bihurtzeko gaitasuna duenez, bateria bezala erabil daiteke, etxeke eguneroko elektrizitate kontsumoa ordezkatzeko esate baterako.



Bizikletak sortutako energia elektrikoa beste eginkizunetan, gure egunerokotasunean, erabili ahal izateko, bizikletaren bateria ateratzeko aukera egongo da, hau da, bateria eramangarri moduko bat. Horrek ere, esan nahi du bateriak independienteki salduko ditugula gure eskutik, inongo hornitzailearen baldintzapenarekin.

Laburbilduz, mekanismo hau erabiltzekotan, energia kontsumoa murriztea lortuko genuke, energia modu garbian eta gainera, jarduera fisikoaren bidez lortuko genukeelako. Zer esanik ez dago, energia ez-berriztagarrien kontsumoaren aurkako neurria izan daitekeela eta autonomoki energia elektrikoa lortzeko gai izango ginen, beste enpresa batzuen menpekotasunik gabe.